



Txotx!

Sagardoaren Lurraldea autokarabanan ezagutzeko gida

Euskal Herrian bada sagardoaren kulturarekin estuki lotua dagoen eta Sagardoaren Lurraldea bezala ezagutzen den eremu bat. Lurralde honek, sagardoaren kulturaren inguruko eskaintza turistikoa zabala eskaintzen du eta bere sagardotegiak, sagastiak nahiz usadioak autokarabanan ezagutzeko aukera ematen du. Izan ere, lurralde honetan, sagardoa produktu bat baino gehiago da: bertako kultura eta nortasunaren parte da.

Sagastiez inguratutako paisaia zoragarriak bidelagun izango ditugu Sagardoaren Lurraldea modu errazean ezagutzeko proposatzen dizuegun ibilbide honetan. Gurekin batera ezagutu nahi duzue?

Zer egin Sagardoaren Lurraldean

Sagardoetxea bisitatu eta sagardotegian otordua egin

Sagardoaren kultura ezagutzeko plan egokia "**Museoa eta sagardotegia**" esperientzia da. **Sagardoetxea Museoa** sagardotegira joan aurretik bisitatzen baduzue, zuen Sagardoaren Lurraldeko esperientzia bere osotasunean ezagutuko duzue. Gure proposamena Sagardoetxea sagardotegira joan aurretik bisitatzeko da, bere sagastia eta museo-gunea bisitatu ostean sagardo dastaketa gidatuaz gozatzeko. Ondoren, **sagardotegira** joan zaitezke ikasitakoa praktikan jarri eta otorduz gozatzera.

Sagardoetxea bisitatzen baduzue, autokarabana aparkatzeko tokirik egokiena **Bidebitarte industrialdea** da, Astigarragako sarreran topatuko duzuen. Ibilgailua uzteko leku seguru eta lasaia da eta 10 minututan iritsiko zarete museora oinez. Ibilbidea Google Maps-en ikusi dezakezue: <https://goo.gl/maps/KkTwR2YVvts>

Sagardoetxea bisitatu ostean sagardotegira joan nahi baduzue, zuen ibilgailua aparkatu ahal izateko beste aukera bat **sagardotegiko aparkalekua** erabili eta Sagardoetxea Museora oinez joatea da. Museoaren inguruan badira zuen autokarabana uzteko aukera eskaintzen duten sagardotegiak. (Oharra: Sagardotegiko aparkalekuan autokarabanak uzteko aukera hau sagardotegiaren okupazioaren arabera da).

Sagardotegiko ohiko menua:

- Bakailao tortila
- Bakailao frejitua piperrekin
- Txuleta
- Gazta, intxaur eta sagar dultzea
- Sagardoa txotx-etik

Jarraian, esperientzia honetaz gozatu ahal izateko beharrezko **informazio praktikoa** zehazten dizuegu:

Museoa eta sagardotegia

- **Ordutegiak:** Asteartetik larunbatera 11:00-13:30 eta 16:00-19:30.
Igande eta jai egunetan: 11:00-13:30.
- **Iraupena:** Sagardoetxeako bisita: Ordu 1. Sagardotegiko bazkaria/afaria: 2 ordu.
- **Noiz egin daiteke?** Urte osoan zehar.
- **Hizkuntzak (Sagardoetxeako bisita gidatuan):** Gaztelania, Euskera, Frantsesa eta Ingelesa.
- **Elkargunea:** Sagardoetxea. Kale Nagusia, 48 - 20115 - Astigarraga.
GPS koordenatuak: 43.281204, -1.946554
- **Tarifak:**

Helduak:	Haurrak:
Museoa (banakakoak): 4€	Museoa (0-3 urte): doan
Museoa (10 pax-tik gora): 3,50€	Museoa (4-17 urte): 2€
Museoa+Sagardotegia: 33€	Museoa+Sagardotegia (4-17 urte): 15€

“SagarBike”, sagardoaren kultura ezagutzuz bizikletan

Sagardoaren kultura ezagutzeko proposatzen dizuegun beste aukeretako bat “SagarBike” esperientzia da. Urumea ibaiaren ertzetik, Donostiatik Astigarragaraino doan **ibilbidea bizikletan** egingo duzue, sagardoaren bihotzera, sagardo ibai honen inguruko sekretuak ezagutzuz. **Sagardoetxea Museoa**n sagardoaren kulturaren barneratuko zarete eta **dastaketa bereziaz** gozatuko duzue sagardoa txotx-etik, sagar muztioa eta pintxo batzuk dastatuz.



Donostiak autokarabanentzako aparkaleku berezitua dauka Berio auzoan (Ondarreta hondartzaren inguruan) eta aparkaleku hau aproposa da bertan autokarabana utzi eta Astigarragara bizikletan iristeko SagarBike esperientziarekin. Aparkalekuaren kokapena Google Maps-en ikusi dezakezue: <https://goo.gl/maps/icm5NcE1Bvj>

Jarraian, esperientzia honen inguruko **informazio praktikoa** aurkituko duzue:

SagarBike

- **Ordutegiak:** Asteartetik larunbatera 10:00 edo 15:00. Igande eta jai-egunetan: 10:00.
- **Iraupena:** 4 ordu.
- **Noiz egin daiteke?** Urte osoan zehar.
- **Hizkuntzak (Sagardoetxeako bisita gidatuarena):** Gaztelania, Euskera, Frantsesa eta Ingelesa.
- **Elkargunea:** Go Local San Sebastian (Sarriegi Plaza, 9 – 20003 Donostia).
GPS koordenatuak: 43.323049, -1.983254699999975.
- **Tarifak:** | **Helduak:** 20€
| **Haurrak:** 18€

Autokarabanentzako aparkalekuak Sagardoaren Lurraldean

Donostiak, autokarabanentzako Europako aparkalekurik hoberena dauka; aurrez SagarBike esperientzia egiteko gomendatutako eta Berio auzoan kokatua dagoen aparkalekua da, hain zuzen ere.

Aparkaleku honetaz gain, badira zuen autokarabanak uzteko beste leku batzuk ere. Jarraian kokapen horietako batzuk zehazten ditugu:

Berioko autokarabanentzako aparkalekua

- Helbidea: Berio ibilbidea, 2 (Donostia)
- Koordinatuak: 43°18'28,33''N y 2°00'52,20''W
- Kokapena Google Maps-en: <https://goo.gl/maps/icm5NcE1Bvj>
- Prezioa: Doakoa.
- Informazio gehiago: www.sansebastianturismo.com



“San Sebastián Arena 2016” kirol instalazioaren alboko autokarabanentzako gunea (Anoeta)

- Helbidea: Miramon Pasealekua, 2 (Donostia)
- Koordinatuak: 43.297067, -1.968629
- Kokapena Google Maps-en: <https://goo.gl/maps/xz1hUWRLvxD2>
- Informazio gehiago: www.sansebastianturismo.com

Donostiatik gertu, **Zarautz-ek** ere badu autokarabanentzako aparkalekua:

Abendaño autokarabanentzako aparkalekua

- Helbidea: Urdaneta kalea, 204 (Zarautz)
- Koordinatuak: 43.277529, -2.180517
- Kokapena Google Maps-en: <https://goo.gl/maps/ipVnPmLzarB2>
- Informazio gehiago: www.aparcatuautocaravana.es

Aire librean gozatzeko bertako produktuak

Sagardoaren Lurraldeak, aire librean jarduera ezberdinak egin eta sagardoa, Idiazabal gazta, sagar dultzea nahiz sagar muztioa bezalako bertako produktu gastronomiko ezberdinak dastatuz indarrak berreskuratzeko aukera eskaintzen duten **parke** eta **piknik-erako gune** egokiak dauzka **landa inguruan**.

Sagardoetxea Museok, 70 sagar barietate baino gehiago dituen sagastia eta sagardo marka ezberdinak nahiz sagarretik eratorritako produktu ezberdinak erosteko aukera eskaintzen duen denda dauzka

Sagardoetxeak, mota (sagardo naturala nahiz postrerako sagardoa) nahiz marka (Euskal Sagardoa y Gorenak) ezberdinetako sagardoak, sagar muztioa, likoreak eta edari bereziak, Idiazabal gazta eta sagar dultzea (sagardotegiko ohiko postrea), etab. bezalako produktuak erosteko aukera eskaintzen duen **denda** dauka. Beraz... Sagardoetxeako bisitan produktu ezberdinak erosi eta beranduago aire librean gozatzeko aukera izango duzue.

Jarraian, paisaia zoragarriez gozatu eta piknik bat egiteko mahai egokiak eskaintzen dituzten **guneak** gomendatzen dizkizuegu:

Santiгомendi (Astigarraga)

- Helbidea: Santio Zeharra 131 (Astigarraga)
- Koordinatuak: 43.274959, -1.932364
- Kokapena Google Maps-en: <https://goo.gl/maps/6LJoC1GNNwT2>
- Informazio gehiago: www.santiгомendi.com

Listorreta (Errenteria)

- Helbidea: Aldura Gunea Aldea, 52 (Errenteria)
- Koordinatuak: 43.272050, -1.894744
- Kokapena Google Maps-en: <https://goo.gl/maps/px4gWv23TBE2>

Orio-Igeldo (Donostia eta Orio artean)

- Helbidea: Calle Diseminados S 1, 42 (Orio)
- Koordinatuak: 43.301981, -2.089433
- Kokapena Google Maps-en: <https://goo.gl/maps/qA3ivAD2Szk>

Ikusi duzuen moduan, Sagardoaren Lurraldean asko dago egiteko, ikusteko eta gozatzeko. Erraza da denbora geldiarazteko nahia sentitu eta denbora gehiagoz geratzeko gogoia sentitzea. Izan ere, bertako kultura, jendea, bizimodua, festak, sagardotegiak... Dena ezberdina eta berariazkoa da Sagardoaren Lurraldean. Zuen bisita antolatu eta gozatu.

Zuen zain izango gara!

Informazioa eta Erreserbak:

Leire Alkorta

Tel: +34 943 550 575

e-mail: info@sagardoarenlurralde.eus

web: www.sagardoarenlurralde.eus